# LEXIKOA:HITZ ELKARTUAK

## 1.Aukeratu esanahi zuzena.

- Nolakoak dira pertsona mokoluzeak?
  a) Sudur handia dutenak. b) Beti berriketan dauden hitzontziak.
- Nolakoak dira pertsona mokofinak?
  a) Janari bikainak gogoko dituztenak. b) Oso-oso argalak direnak.

## 2.Aukeratu hitz egokia kasu bakoitzean.

- Aitonak ez du batere ilerik buruan; ____ da.
  a) burugorria b) burusoila
- Panpinari hanka kendu dio nebak eta orain ____ dago gaixoa.
  a) hankamotz b) hankalabur
- Mutil hori beti dabil triste edo ____. Zerbait egin behar dugu pozteko!
  a) betilun b) betoker
- Den-denok biluzik edo ____ jaiotzen gara.
  a) larrugorrian b) larrugin

## 3.Adierazi egia ala gezurra den.

- Burugogorra da buruarekin harriak apurtzeko gai dena.
- Ahoberoa da beti gehiegikeriak esaten ibiltzen dena.
- Eskuzabala da esku handi-handiak dituena.
- Ahozikina da hortzak garbitzen ez dituena.
- Buruargia da pertsona azkarra, adimen handikoa.
- Eskulaburra da pertsona zekena, ezer ematen ez duena.

LIVEWORKSHEETS